



263. zenbakia

· Ekaina 2026 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



ZORIONA EZ DA

Oihana Arana – Zerua hemen (Susa, 2026)



Existitzen ez den ze argazki gorde
pentsatzen dut
asko falta zaizkit
eskura ditudanetan
jendea pozik dago

topa egiten
eguzkitako betaurrekoekin
irriak eta
loreak edalontziak liburuak

non dago mina
non garen hau egin duten
eszena grotesko guztiak
zergatik ez dira kapturatzen
gorpuzkera barroko horiek

telefonoz utzi zintuztenekoa
etxetik bota zintuztenekoa
aita hilko zela esan zizutenekoa

zoriona ez da
zoriona ez dago beti
zerua bai

existitzen ez diren argazkiak bil-
tzeko
poemak idazten hasi beharko
dugu.



Hautatu



3 hedabide

Km

komunikazioa

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera



pulunpe

amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@ametza.eus

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkartea, Iparraldeko ehiztariak, Ametza Kultur Elkartea eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Erlastarra sagarrondo batean.
Egilea: Jorge Biurrarena

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira apirilaren 8ean bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Global Summud Flotilla*

08

Ingurumena. *Orcina*

10

Albisteak.

14

Kronika. *Denok bat jubilatuen elkartea*



16

Elkarrizketa. *Mikel Belasko, Erasoko leku-izenak*

20

Zer ikusi. *Amezti.eus maiatzean*

22

Aspaldiko kontuak. *Ikaragarria Beramendin gertatutakoa 1896an*

25

Ardo freskoa. *Monakon barna, Euskal Herri handira*

26

Zer irakurri. *Ultzamako liburutegia*

28

Kultura. *Bertso Eskolen Eguna*

30

Kirola. *Podiumetik gertu*

32

Kolaborazioa. *Cederna Garalur*

34

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Apirila*

35

Ametzaren Txokoa. *Helbide elektroniko berriak*



Esperientzia horrek izugarri batuko zintuzten ezta?

Bai. Aldez aurretik ez ginen ezagutzen. Banaketa jendea babesteko egiten da. Hau da, pasaporte batzuk "indar pasaporteak" deitzen ditugu, mendebaldekoa izatea baduelako pisu gehiago beste herrialdeekin alderatuta. Horregatik, tripulazioak nahasten ziren pasaporte horiek beste batzuei babesa emateko.

Lehenengo interzezioan atzeman zintuzten?

22:00ak pasata izanen ziren, hor nonbait, eta zerbait gertatzen zela esanez esnatu ninduten. Altxatzeko eta emergentziazko txalekoa jartzeko esan zidaten. Bost minutura barku militar handi bat ikusi nuen eta gure kapitainak makinei topera eman eta ihes egiten hasi ginen, dronak gaintetik genituela. Kretarako bidea hartu genuen, ur territorialak 12 mila nautiko izaten direlako eta gu 50 edo 60 bat milatara geunden. Zazpi orduko ihesa izan zen eta tresna elektronikok batean barku guztiak ikusten genituen:

batzuk abiadurarik gabe gelditzen zirela, eta, beraz, atzematzen ari zirela. 12 milatara iritsi ginenean, esan genuen, listo, libre gaude. 24 bat barku iritsi ginen Kretara eta 22 atzeman zituzten. 180 lagun eraman zituzten preso.

Beldurra sentituko zenuten alde batetik eta, bestetik, kezka lagungandik, ezta?

Jende askok galdetzen dit hori eta nik esango nuke beldurra baino gehiago, momentu horietan, oso adi zaudela. Begirada toki guztietan jarri behar duzu eta beldurra baino gehiago adrenalina sentitzen duzu. Oso urduri, bai, nahiz eta zazpi ordu iraun zuen, eta denbora guztian, oso-oso adi. Kretako uretara iritsi ginenean lasaitu ginen. Zure gauza bera egitera doan jendearekin egotea inportantea da, jendeak ez zuelako beldurrik eta hori kutsatzen da. Hor zaudela, giroan, gauzak beste modu batera ikusten dira. Nik beldur gehiago pasa nuen erabaki nuenean joanen nintzela eta baiezkoa eman zidatenean. Orduan oso gaizki egiten nuen lo, eta

gero hantxe oso gustura egiten nuen lo (irriak). Mentalizazio kontua da.

Atzeman ondoren, Kretara iritsi zineten, zer gertatu zen orduan?

Ez ginen asko fidatzen Greziak gurekin zer egiten ote zuen. Badia batera iritsi ginen, baina ontzitik ez jaistea erabaki genuen. Horrela egon ginen bi egunez, argitu arte zer gertatzen zen atxilotuekin eta zer egin behar genuen jakin arte, aurrera segitu edo ez, eta zer baldintzetan. Ontzitik jaitsi eta nik ordurako itzultzeko erabakia hartu nuen. Heraclionen dago aeroportua, hara joan ginen, etxe okupatu batean egin genuen lo, eta buelta egin genuen.

Jarraitu al zenuten zer gertatzen zen bahituekin?

Bai, etorri baino lehen aukera izan genuen beraiekin egoteko. Nire kasuan Patxirekin itzuli nintzen (Landerren lankidea eta Israelgo ejertzitoak atxilotuetako bat). Oso bitxia izan zen alde batetik Greziak konplizitatea izan zuelako Israelekin, eta, bestetik, libre utzi zituelako. Ez genuen aske gelditzea inondik ere espero. Eta aske gelditu ziren askok erabaki zuten flotillara itzultzea. Orain-maiatzaren 20an- preso dauden batzuk bigarrenez daude preso eta tratu txarrak jaso zituzten hantxe, Israelgo barkuan. Irudietan ikusi genituen batzuk besoa hautsita eta begiak moreak. Hala ere, horietako batzuek aurrera segitu zuten gero. Greziaren jokabidea aztertuz, alde batetik Israelekin izanen dituen konpromisoak bete nahi izango zituen, eta, bestetik, gure egoera ez sobera zaildu, horrelako oreka bat bilatuko zuten...

Ondoren Thiago Ávila eta Saif Abukesh Israelera bahituta eraman zituzten, ia bi astez, eta torturak jaso zituzten. Zuk ere gose greba egin zenuen haien askatasuna eskatzeko.



Flotillako kideak Bartzelonan, apirilaren 15ean.



Global Summud

Flotilla



▲ *Isobela itsasontzia, Lander eta beste bost kide hartu zituen.*

Asko kezkatu gintuen tratamendu diferente hori. Mugimenduko aurpegi ezagunenak direnak askatu ez eta, gainera, Israelera eraman zituzten. Beldur ginen zer gertatuko ote zitzaien. Beraien kontrako karguak oso larriak ziren, Saifin kasuan are larriagoak, eta Israeldarrek lege bat atera berritan, non heriotz zigorrera kondenatu daitezke bakarrik palestinarrek. Saif nahiz eta nazionalidadez ez, palestinarra da eta beldur ginen heriotz zigorra ezarriko zioten. Gose eta egarri greban zegoen eta guk gose greba egitea erabaki genuen. Ez ginen bakarrik izan, munduko hainbat tokitan ere egin ziren. Gure sorpresarako aske utzi zituzten.

Borrokak badu emaitzarik batzuetan, beraz?

Bai, bai. Nik ez dakit zer mugimendu diplomatikoak egonen ziren eta nik

oso argi daukat mugimendu horiek azkenean gizarte zibilak bultzatzen dituela, dudarik gabe. Isiltasuna badago gobernuek ez dute deus egiten. Flotilla bera gizarte zibila antolatzen den ekimena da, mundu mailan. Eta zerbait praktikoa egiten du, laguntza humanitarioa eramatea behar den toki batera, non estatuek ez dute deus egiten. Hantxe ginela, Europatik bertatik esan zuten Flotillak ez duela zentzurik, Europak bidaltzen duelako laguntza humanitarioa, baina ikusi dugu laguntza humanitario hori Israelen eskuan dagoela eta, gainera, jendea tirokatzeko, hiltzeko erabili izan duela. Hipokresia ikaragarria dago. Israel hiltzailea eta Europa laguntzailea da. Politika praktikoa ez badituzu aurrera eramaten, isiltasunarekin Israelen inpunidadea besterik ez da lortzen.

Mobilizatzen jarraitu behar dugu?

Flotillaren ekimenak Gazan fokua jartzea eta desobedientzia zibileko ekintza bat egitea bilatzen du. Injustiziak ezin dira eman populazioak onartzen ez baditu. Lobby israeldarrak, gure baitan daudenak ere, desenmaskaratu behar ditugu. Harreman komertzialak, hemen ekoizten dituzten produktuak... Beti egin duguna aktibatu behar dugu, hau da, manifestazioak, eserialdiak, ekintzak... Israeldarrendako jasateko zaila den egoera bat bultzatu behar dugu. Urruti gaude, baina bidean. Ezin dugu etsi. Kontzientzia maila eta Palestinarekiko elkartasun sentimendu zabala dagoen toki batean bizi gara, baina toki gehiagotara iritsi behar gara. Israeldarrak 10 milioi besterik ez dira, eta hainbeste eragina baldin badute mundu mailan dauzkaten tentakuluak toki guztietan hedatu dituztelako da. Eta hori da moztu behar duguna, tentakulu horiek.

Esaten duzun bezala, Euskal Herriak ere tratatu komertzial garrantzitsua du Israelgo Estatu kolonialarekin. CAF da ezagunena baina beste enpresa batzuk ere badaude.

Adibidez Estatu Batuek fabrikatzen duten F-35a, Israelek Gaza bonbardatzeko hainbeste erabili duen hori, 1.500 lantegi diferentek egiten dute, horien artean M Torres Nafarroako lantegi batek. CAFen oso inplikatura daude, kolonoen lurraldeetan erabiltzen diren garraio-komunikabideak ekoizten dituztelako. Hori sionismoaren aldeko politika aktibo bat da. Langileek ere salaketak egin dituzte eta bide horretatik jarraitu behar da. Lanpostuen aitzakiarekin ezin dira horrelako injustiziak justifikatu. Iruñean adibidez Solaris autobusa erabiltzen da mankomunitatean eta CAFek egiten duen produktua da. Marka hori ez erosteko eskatu behar da, beste batzuk badaude.



Kide palestinarrak ere izan dituzue, iristen al zaizkie hemen egiten ditugun ekintzak?

Enteratzen dira, dudarik gabe. Flotillaren ekimena oso presente daukate Gazan. Jakinda ere, ziur aski, ez zela ailegatuko. Summud hitzak erresilentziaren antzeko esanhaia du eta Palestinarrek kulturalki dute hori, Nakbatik 78 urte pasa direla. Nire barkuan 64 urteko palestinar bat bazen eta konbikzio osoz zioen ailegatuko ginela. Bere amaxiren

etxera gonbidatu gintuen, Gazara. Hauxe esaten zigun: "Zutik jarraitzen duen etxe bakarra da, baina hala ere, hantxe elkartuko gara eta gustura egonen gara" eta benetako grinarekin esaten zuen. Flotilla blokeatu zutenean triste egonen zela esan nion eta berak erantzun zidan: "Triste zergatik? Guk urte pila daramagu borrokan eta honek segitzen du", pozarekin esan zidan, gainera. Palestinarrak sekulako adibidea dira. Palestinarrek seme-ala-

ba pila dituzte, Israelek hori badaki eta horregatik hiltzen ditu haurrak. Israelgo gizarteak ordea hazkunde negatiboa du, biolentzian hazten den gizarte bat ez duelako etorkizunik. Azken bolada honetan bide hortatik ikusten ari naiz, Israelek ez du etorkizunik. Irla bat da toki geografiko horretan eta beraiek bizi dira beraiek ez diren guztiak etsai bezala ikusten, eta horrela ezin da bizi.

Munduan zabaldutako irudi lazgarriak

Lander Aurrekoetxearekin hitz egiten genuen bitartean mundu osora zabaltzen ari ziren Itaman Ben Gvir Israelgo Segurtasun Ministroaren irudiak Flotillako ekintzaileei barre eginez. Flotilla bigarren ez atzeman eta gero atxilotu zituzten eta bideoan lurrean ikusten ditugu, belauniko, burua zoruan. Batzuek nola jipoitzen zituzten ere ikusi daiteke irudietan. Ministroa, bitartean, Israelgo ikurrina zeraman eta "Ongi etorri Isaraelera" esaten zien irriz eta oldarki.

Baina ez dira munduan hedatu diren irudi lazgarri bakarrak. Eta



▲ Ertzaintzak bortizki kargatu zuen Flotillako azken delegazio euskaldunari Loiu egindako ongi etorrian

hauek gertu grabatu ziren. Maiaztaren 23an egin zitzaizen ongi

etorria Loiuako aireportuan Euskal Herrira iritsi ziren azken ekintzaileei. Eusko Jaurlaritzak Ertzaintza bidali zuen eta polizia bortizki kargatu zuen delegazioaren eta harrera egitera joan ziren herritarren kontra. Lander Aurrekoetxea bera dago jipoitutakoen artean. Sei atxilotu zituzten, horietako bat ospitalera ere eraman behar izan zutela. Arratsaldean aske utzi zituzten denak.

Flotillakoek dioten bezala, tratu txar hauek guztiak ez dira deus palestinarrak haien lurraldeetan egunero jasan behar dutenarekin. Pulunpeko erredakziotik gure elkartasun guztia haiekin eta baita ekintzaileekin ere



▲ Itamar Ben Gvir Israelgo Segurtasun Ministroak barre egin zien Flotillako azken bahituei, hauek eskuak lotuta belauniko jarri zituztela



Oreina, berreskuratu beharreko espeziea

Nafarroako ipar-mendebaldean ohiko espeziea da oreina, baina aurreko mendearen erdialdean desagertzera iritsi zen presio zinegetikoagatik. Araizko, Goizuetako eta Altsasuko armarrietan ageri da gaur egun zonaldean desagertua den espezie hau, izan zuen garrantziaren adierazgarri

Nafarroako Foru-aldundiak espeziea berriz sarrarazteko erabakia hartu zuen 50. hamarkada erdialdean, animalia hainbat askatze eginda eta Bertizen, Kintoan, Iratin nahiz Lantzen bere ehiza debekatu. Oreka ekologikoari begira baino, ehizari begira hartutako erabakia izanen zen seguraski, garaian ez baitzen ohiko kontzeptua lehena.

Kintoako populazioak arrakasta izan zuen animalien askatzean izan zuten arreta eta zaintzari esker, baita hurrengo urteetan ale gehiagoren askatzeekin indartu zutelako ere. Iratikoak ere arrakasta izan zuen, eta zortea izan zuen garai berean beste askatze bat egin zutelako ohian masa berdinean, baina mugaz bestalde. Lantzen askatu zituzten 18 buruek ez zuten zorte bera izan, lehen urtean ehizatuak izan baitziren inguru horretan.

Horregatik, ez du askorako balio ongi planifikatutako animalien askatzeak, gero ez badira lege ordenantzak errespetatzen. Lehen urteetan ehiza-debekualdia zorrotz betearaziko duen oihanzain talde kementsu eta efizientea beharrezkoa da, askatutako abelburuak egokitzen eta umatzen diren bitartean. Ondoren, zorrotz kontrolatu beharko da ezartzen den aprobetxamendu zinegetikoa. Gaur egun, Erronkaritik Belateko N-121-A errepideraino doan Nafarroako ipar-ekialdeko zerrrenda hartzen du oreinak.

Oreina zabalkundea motela da eme gazteak jaio ziren eremuaren aldameneko zonaldeetan ibiltzen direlako, eta har gazteek lurralde berrien bila kilometro franko egin ditzaketan arren, denboraldiko harrek, orroaldi garaian emerik ez topatzean, horiek ugari dauden

zonaldeetara bueltatzen direlako.

Ingurumen eta Landa Garapen kontseilaritzak egin duen oreinaren kudeaketa ez da inoiz bereziki eredugarria izan, Alemanian eta beste zenbait tokitan egiten duten kudeaketa eraginkorraren aldean. Han, ehiza oso selektiboa egiten dute eta ingurura egokitutako populazioa lortzen dute horrela, kalitate handikoa eta ongi orekatua.

Horri guztiari Ingurumen sailaren urteetako zentzugabekeria gehitu behar zaio, izan ere, oreinak bere zabalpena Nafarroako ipar-mendebaldera segitzea galarazi dute N-121-A errepidearen Mendebaldeko kotoetan zigilu kantitate oso altuak emanez eta oreinak bere lehengo lurraldeak berreskuratzea zailduz. Zenbait kasutan, oreinak hiltzeko zigiluak eman dira horietako alerik ez dagoen tokietan, ulertu ezin daitekeen eta guztiz salagarria den erabakia. Basaburuan, esaterako, hamar orein ehizatu daitezke legez, baina ez da ale kopuru horretara iritsi ere egiten.



Oreinak kumeekin, Anueko bailaran

“
**Espezie honi
bizi izan den
leketan bizitza
galarazten zaio**
”



Biodibertsitateari begirako logikatik at, espezie honi bizi izan den lekue-tan bizitzea galarazten zaio. Gainera, Nafarroako ipar-mendebaldeko udaletxe eta kotoei etorkizunean trofeo enkanteen bidez, haragiaren aprobetxamenduaren bidez nahiz orroaldi garaiko ikuskizunetik izan litzaketan diru-sarrerak galarazten zaizkie.

Ezinbestekoa da oreina bertako espezie gisa berreskuratzearen garrantziaz kontzientziatzea, eta horretarako neurriak hartu beharra dira, N-121-A errepidearen mendebaldean egon daitezken orein eme eta gazte guztiak errespetatzea, adibidez. Beharrezkoa da ulertzea zonalde batean hain urria den animalia bat ehizatzeak galera handia dakarrela, inolaz ere justifikatu ezin dena. Gaurko ogia biharko gosea da.

Era berean, Nafarroako beste inguru batzuetatik ipar-mendebaldeko lau mendiguneetara askatzeak eta lekualdaketak egin beharko lirateke: Leitza-Belate uren banalerrera, Artikutza-Erakurri-Mendaur ingurura, Aralar eta Urbasa-Andiara, esaterako. Zonalde horiek guztiak oreinarentzat habitat ezin hobeak dira, iraganean izan ziren bezala. Nafarroako Adecana ehiztarien elkarte ere oreinak herrialdeko ipar-mendebaldera zabaltzen uzteko eskatzen ari da azken urteetan.

Korridore ekologiko piriniar-kantauriarra gurutzatzen duen Leitzarango A-15 autobidean hesituak eta itxiturak berritzea ere ezinbestekoa da, gaur egungoak oso baxuak direlako eta hondatuta daudelako. 2,2 metroko altuerako hesiak jarri beharko lirateke oreinek, eta oro har faunak,

“ Zonaldean hain urria den animalia ehizatzeak galera handia dakar ”

hesitua jarrai dezaten eta autobide azpiko eta gaineko igarobideetatik gurutzatu dezaten.

Espezie enblematiko honen berreskuratzeak udalen, kotoen eta Ingurumen kontseilaritzaren bultzada eskatzen du, eta horretarako ulertu beharra dute gure bailaretan berreskuratu beharra dagoen bertako espezie desagertu batez ari garela.

 *Iparaldeko ehiztariak*



▲ *Oreinak Anuen*



Diska berria atera du Iñaki Larrayoz musikari ultzamarrak

Larra Bideak II du izena eta ekainaren 3an kaleratu zuen plataformetan eta ekainaren 12an aurkeztuko du Laban, Iruñeko Gaztelu Plazan; eta, ekainaren 25ean Larraintzarko Zentro Zibikoan.

Bakarrik hasi zen bigarren lan honetan, baina lagunak batzen joan zaizkio bidean. Iñigo Astiz idazle Ultzamarrak jarri dizkio letrak bigarren proiektu honi ere; eta, gainera, musika talde batekin grabatu eta eramane du oholtzara. Ibai Gogortza, gitarran eta ekoizpenean (Harat, Joseba Irazoki, Mice); Mattin Arbelaitz, baterian (IZARO, Janus Lester, Harat); eta, Iñigo Telletxea, baxuan (Petti, Anje Duhalde, Joseba B Lenoir).

Larrayozen Larra Soinu Tresnak tailerlean grabatu dute eta estudio erdi inprobisatu gisa jantzi dute horretarako, irudian ikusten den bezala. Soinuaren maisu, Iñigo Irazoki izan dute horretarako (Atala estudioa, Bera. Belako, Napoka Iria, Jabier Muguruza). Eta, hau ere analogikoan grabatu dute. Nahasketa Beran egin du Irazokik, Atala Estudioan. Eta masterizazioa Chicagon Matthew J Barnharten esku utzi dute.

Sei kanteak osatzen dute Larra Bideak II eta azaleko marrazkian bezala eta neguan grabatutako estudio-tailer inprobisatuan bezala: "Soinuaren umela eta iluna" dela batzuetan, azaldu dute oharrean, "baina argi printzek epeldua beste hainbatetan". Bandcamp, youtuben, eta bes-telako plataforma digitalean dago, honezkero, entzungai.

Iñaki Larrayoz Arano Larraintzarko musikaria da eta 2019an atera zuen bere lehenengo bakarkako diska, Larra Bideak. Pop, folk eta rock doinu intimistek osatzen zuten lehenengo lan hori.





Uztailaren 4an hasiko da Gartzarongo Pilota Txapelketa

Hemen da berriz eskualdeko pilotaren hitzordurik garrantzitsuenetako bat, Gartzarongo Pilota Txapelketa. XLI. edizioa izanen da aurtengoa, eta izena emateko epea ekainaren 5a arte egonen da zabalik. Urtero bezala, Gartzarongo Toki Alai elkarteak antolatu du kirol ekimena, eta hainbat kategoriatan jokatuko dira partidak. Horietako bakoitzean izena emateko bikote kopuru mugatua jarri dute antolatzaileek:


- **Umeetan** (2014-2015 urteetan jaiotakoak), 48 bikote
- **Haurretan** (2012-2013 urteetan jaiotakoak), 48 bikote
- **Gaztetxoetan** (2010-2011 urteetan jaiotakoak), 48 bikote

- **Gazteetan** (2008-2009 urteetan jaiotakoak), 32 bikote
- **Nesketan** (2009-2013 urteen artean jaiotakoak), 6 bikote
- **Helduetan** (2008 baino lehen jaiotakoak), 48 bikote

Txapelketan parte hartu nahi duten bikoteek ekainaren 5era arte izanen dute izena emateko aukera, **HYPER-LINK** "mailto:tokialaipilota@gmail.com" tokialaipilota@gmail.com helbidera idatziz edo 659 44 36 64 telefonora deituz. **Uztailaren 4an hasi eta urriaren 31 arte luzatuko da aurtengo txapelketa**, eta beti bezala, asteburuetan jokatuko dira partidak, normalki, Gartzarongo pilotalekuan.



- **PSIKOTERAPIA**
- **ORIENTAZIO PSIKOLOGIKOA**
- **ARAZOAK KONPONTZERA BIDERATUTAKO TERAPIA LABUR ETA ESTRATEGIKOA**



- **PSICOTERAPIA**
- **ORIENTACIÓN PSICOLÓGICA**
- **TERAPIA BREVE Y ESTRATÉGICA ENFOCADA A SOLUCIÓN DE PROBLEMAS**

luzkipsiko@hotmail.com

Ane Buitrón (N-02107)

637 18 60 27



Ekainaren 19an, Esan Erran irratiako denboraldi bukaera

Irailetik martxan egon da Esan Erran irratiako 2025-26ko denboraldia, eta urtero bezala, ekainaren bukaera aldean emanen diote ikasturteari bukaera. Hain zuzen, ekainaren 18an izanen da azkeneko zuzeneko Egun Ero magazina. Horrekin batera, ostiraletako Egun Ero Kantuz eta Memoriaren Txokoa saioek ere geldialdia izanen dute. Ostegunetako Broma Gutxi saioaren kasuan, aste batzuk gehiago luzatuko du denboraldia Txomin gidariak.

Irratiko kolaboratzaile sare zabalari esker, edukietan urte oparoa izan du beste behin Esan Erranek, eta guzietan eskerak emateko aprobetxatuko dugu tarte hau. Literatura, kirola, zinema, internazionalismoa, krimen nobela, musika disidentea eta kuirra, ingurumena, mendia, historia... denetik izan dugu Egun Eron! 25 lagun inguruk hartu dute parte irratian hileroko kolaboratzaile gisa, eta espero dugu datorren ikasturtean ere parte hartze horri eustea.

Udako oporren ondoren, irailaren erdialdean itzuliko da Egun Ero magazinaren denboraldi berria, eta aurreratu dezakegu, berrikuntzaren bat edo beste ere izanen dela...



Adinduendako zerbitzu ibiltaria Basaburuan, Imotzen, Ultzaman eta Atetzen

'Herriz herri despopulazioaren aurrean' ekimena abiatu du Nafarroako Gobernuak Solera Fundazioarekin batera, adinekoendako zerbitzu ibiltariak eskaintzeko asmoz. Ekimenaren aurkezpena izan zen maiatzaren 20an Jauntzaratsen eta maiatzaren 21ean Larrainzarren, arratsaldeko 18:00etan. Lucia Burgi ekimeneko gizarte langileak Esan Erran irradian adierazi zuenez, landa eremuko herri txikietan zerbitzu soziosanitarioetako sarbidea bermatzea da egitasmoaren helburua.

Estimulazio kognitiboa, fisioterapia, zahartze aktiboan eta gaitasun digitaletan laguntza, zaintzan prestakuntza eta etxearen egokitzapenari buruzko aholkularitza egiten dituzte, besteak beste, unitate ibiltarian mugituko diren profesionalak, eta doako zerbitzua izanen da. Informazio gehiago jaso nahi dutenek edo ekimenaren bultzatzaileekin harremanetan jarri nahi dutenek 621 22 89 96 telefono zenbakira deitu edo enruta@soleraasistencial.es helbide elektronikora idatzi dezakete.



EN RUTA- HERRIZ HERRI

FRENTE A LA DESPOBLACIÓN - DESPOBLAZIOAREN AURREAN

SERVICIOS ITINERANTES PARA PERSONAS MAYORES - ADIMAKOENTZAKO ZERBITZU IBILTARIAK

SERVICIO GRATUITO
DOHAKO ZERBITZUA

-  FISIOTERAPIA Y TERAPIA OCUPACIONAL
FISIOTERAPIA ETA TERAPIA OKUPAZIONALA
-  ESTIMULACIÓN COGNITIVA
ESTIMULAZIO KOGNITIBOA
-  FORMACIÓN EN CUIDADOS Y AUTOCUIDADOS
ZAINTZA ETA AUTOZAINZAKO PRESTAKUNTZA
-  ASESORAMIENTO EN ADAPTACIÓN DEL HOGAR
ETXEAREN EGOKITZAPENARI BURUZKO AHOULKULARITZA
-  ENVEJECIMIENTO ACTIVO Y COMPETENCIAS DIGITALES
ZAHARTZE AKTIBOA ETA GAITASUN DIGITALAK



¡INFÓRMATE!
INFORMA ZAITEZ!
621 22 89 96

enruta@soleraasistencial.es





Lagundu. Gidatu. Zaindu.

Pantailak egoki erabiliz gero,
bere ongizatea hobetu
daiteke.

MODU
KONTZIENTEA
AKTIBATU



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua



NAVARRA ❖ **NAFARROA**

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

Mus txapelketa, zahartze aktiboa eta Baionara txangoa

Oraingo kronika hau maiatzeko gertaerez osatuko dugu baina aurretik apirilekoan ahaztua utzitako baten gainean idatziko dugu: apirilaren 17an bukatu zen **55. mus txapelketari** buruz hain zuzen

Urtarrilaren 30ean hasitako txapelketak ostiralero 24 bikote bildu ditu musean aritzeko, Larraintzarko bentan. Liga moduan jokatzeko da, denok denon kontra, sailkapena irabazitako txikoen arioren eginez. Hemen dituzue sarituen argazkia eta izenak

Mus 26/04/17

Txapeldunak

Agustin Ciganda Guerendiain – Santiago Iraizoz Etulain

2.Saria

Nicolas Iragui Ciganda– Martin Zalaba Ortabe

3. Saria

Jose Domingo Cilveti Guelbenzu – Pedro J Guerendiain Cilveti (Jose M Garcia Legarrea ordezkari)

Bestetik, maiatzaren 8an Zahartze Aktiboaren eguna izan genuen, Larraintzarko Ultzama frontoian. Goizeko hamarretan eman zitzaion hasiera eta lehendakariaren aurkezpen txiki baten ondoren, gaien



LV. mus txapelketako 3 bikote sarituak ▲

lanketari ekin zitzaion. Eskualdeko osasun eta gizarte arloko profesionalak genituen lau gaiak lantzeko. Lehenengo hirurak, taldeetan banaturik landu genituen, horrela beraiekin hitz egiteko eta galderak egiteko errazagoa zitzaigulako. Horrela, Elikadura, Estimulazio kognitiboa eta Ongizate emozionalaz hitz egin ziguten eta gure osasuna jarraibide arin batzuei kasu emanaz nola hobetu dezakegun azaldu ziguten. Laugarren gaia lantzeko, ariketa fi-

sikoarena, denok elkartu ginen eta ariketa xume batzuk egin genituen beraien aholkuak jarraituz. Ariketaz gain dibertigarria izan zen eta hori ere osasungarria dela ikasi genuen. Bukatzeko, pintxo batzuk oparitu zizkiguten, goxoak eta osasungarriak. Gainera, egun horretaz gain, hilabete zehar han aipatu zizkiguten tailerrak aurrera eramanez: Nutrizioak, Amaia Olague nutrizionistaren laguntzarekin, maiatzaren 13an Erripan eta maiatzaren





20an Eritzen. Ongizate emozionalen atalean ere, Larraintzarko osasun etxean, Solera taldeak emandako pentsamendu positiboen inguruko tailerra, maiatzaren 26an.

Maiatzako txangoa Baionara egin genuen. Goizean, betiko moduan, bi autobus hartu eta Baionarako bidea hartu genuen. Han bi gida genituen Baiona handia eta ttipia gurekin ikusteko. Bi taldetan banatu ginen eta Bixentek euskaraz eta Laurek gaztelaniaz erakutsi ziguten Baionako alderdi interesgarriak.

Baionako historian izandako gertakera nagusiak ere kontatu zizkiguten, gaurko egoerara ekarri dutenak eta guretzat ezezagunak zirenak. Uraren gainean eraikia dagoela, adibidez, eta Erdi Aroan, Errobi eta Aturri errekek Capbreton aldera zindoaztela eta ez itsasorantz, orain bezala. Edo San Espiritu auzoa Espainiatik bidalitako juduek osatu zutela eta nahiz eta Baionako auzoa izan, Landetakoa bihurtu zutela 1792 urtean eta 1857an itzuli zela berriz Baionako auzo izatera, bestetik, beste gauza askoren artean.

Ikusitako eraikinen artean aipatzen da katedrala.

Estiloa gotikoa du baino erromani-koa zen beste baten gainean eraikia dago, eta bere altuerarengatik,



liraintasunarengatik eta argitasunarengatik nabarmentzen da. Ia 300 urte kosta zitzaien eraikitzea eta bitxia da urte horietan Akitania eta Lapurdi Ingalaterrakoak zirela. Itsas aldeko Santiagoko bidean dago Baiona eta katedrala erromesek betetzen zutenek, kapila berri bat eraiki zuten, klaustroari alde bat kenduz. Horregatik, oraingo klaustroak hiru alderdi ditu, lau izan ordez. Azokara ere hurbildu ginen eta argazkia ateratzeko elkartu ere.

Hortik autobusa hartzeko ordua iritsi zen eta harren bila joan ginen. Bazkaltzera, ordea, hain ongi ema-

ten diguten Azketa, Zugarramurdiko jatetxera. Bazkari benetan bikaina egin ondoren itzaletik pasa genuen arratsaldea bero baitzegoen. Ilunabarrean etxe aldera abiatu eta txangoari bukaera eman genion, Baionak baduela zer ikusi gehiago aipatuz.

Saioako paseoak

Etxalekuko mendietan egurra ateratzen ari direnez, maiatzeko "paseoak", Saioa inguruan egin genituen, batzuek Saioara igo ziren eta besteak Iturroondo, Okolin, Zuriain eta Saioa zapaldu zituzten. Elkarrekin mendi gainean bildu ziren argazkia ateratzeko. Eta, gero Lanzko ostatuan ere, bazkari ederra egiteko eta goizean egindakoari saria emateko.

Hurrengorako mendi lanak bukatzen badituzte, Etxaleku inguruan izanen dugun mendi ibilaldia eta Canfranc aldera eginen dugun txangoa joanen dira datorren kronikan. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatu Elkartea

Toponimia eta leku-izenak gizartearen isla dira

Maiatzaren 8an Erasoko leku-izenen inguruko solasaldia izan zuten Kontzeju Etxean, eta Mikel Belasko filologoa eta euskal toponimian aditua gonbidatu zuten bertara. Hogei lagunetik gora elkartu ziren ekimenean, herritarren artean interesa piztu zuen seinale. Solasaldiak utzitakoak kontatu zizkigun Belaskok Esan Erran irratian egin genion elkarrizketan

Zer landu zenuen Erasoko hitzaldian, zertaz aritu zineten?

Horrelako hitzaldietan leku-izenak nondik eta nola sortzen diren azaltzen dut normalean, ez baitaude hor besterik gabe edo kapritxo, izen horien atzean dauden legeak azaltzen ditut. Jendeak ez zuen bilera bat egiten mendi bat nola izendatu erabakitzeke, bertan zegoena, bertako errealitatea izendatzen zuten, egia dioten izenak dira. Edo, beste kasu batzuetan, jabearen edo hango pertsonaren izena jartzen zuten, bi bide horietatik sortzen dira gure izenak. Horietako askok mila urte baino gehiago dituzte, beraz, hitz horien

atzean badago galdu zaigun mundu eta hizkera bat, eta askotan hori izatena da interesgarriena.

Bazenuen lehenago harremanik Erasoko edo Imozko euskararekin?

Tira, nik badut abantaila bat, duela 30 bat urte Nafarroa osoan egin zen toponimo eta izen bilketa orokorrean parte hartu bainuen. Lan hori liburuetan argitaratu zen gerora, eta gaur egun interneten ere badago, beraz, ez dut deus berezirik egin beharrik. Berez, hitzaldietakoa egoera arraroa da, izan ere, Erasoko leku-izenak Erasoko herritarrek ezagutzen dituzte, belaunaldiz belaunaldi pasatu den

tradizio eta altxorra dira, bakarrik komunitate horri dagokiona, mundu globalizatu honetan nahiko berezia dena. Irakurketa klubean antzekoa izaten da egoera, baina alderantziz: ni espezialista bezala nator, baina idazleak haiek dira, nire aurrean daudenak, eta idazten jarraitzen dutenak. Nik horretara animatzen ditut, idazten jarraitzera eta ongi zaintzea. Beraz, horixe, berez nik ez dut deus berezirik egin beharrik, egina dago lana. Kontua da duela ehun urte askoz izen gehiago zeudela, eskritura eta pape-retan idatzita gelditu direnak, eta lan askoz handiagoa eta politagoa egin daiteke, Erason eta beste edonon.

Horren harira, leku-izenak eta euskal toponimiak badira pixkanaka galtzen ari diren aberastasuna?

Bai, gertatzen ari diren aldaketen erakusle edo ondorio kezkarri gisa hitzaldia bera gazteleraz egin izana

“

Galdu zaigun mundu bat dago askotan toponimoen leku-izenen atzean

”



Mikel Belasko ▲

“

Jendeak asko gozaten du berak ezagutu dituen izenen inguruan solasean

”

da. Zer esan nahi du horrek? Bada, Erasoko komunikazioak gaztelerak pisu handia duela honezkero, eta horrek eragin zuzena du leku-izenetan ere. Nik erabiltzen ditudan duela 30 urteko mapetan den-dena euskaraz dago, Erasotik Latasara doan bideari 'Latasako bidea' esanen zaio adibidez, baina gazteleraz ari bagara, 'Camino de Latasa' bilakatuko da. Hori gertatu zen Iruñerrian: euskara komunikazio hizkuntza nagusi izatetik aldendu zenetik ehun urte pasa direnean, toponimoen erdiak gaur egun gazteleraz daude. Azkenean, toponimia gizartearen ispilua da, dagoena islatzen du. Hizkuntzarena elementu bat da, baina beste bat da Europa osoan gertatzen ari den fenomeno, lurrarekin harreman geroz eta gutxiago izatea. Gure soroen artean azkarrago mugitzen gara gaur egun 4x4 ibilgailuan, kontzentrazio partzelarioak egin dira, alorrak handiagoak dira, izen gutxiago behar dira, gutxiago bizi gara gure alorretan... eta horrek eragin handia du toponimian.

Dena den, hizkuntzarekin lotuta, alderantziz ere gertatuko da batzuetan, euskaraz gutxi hitz egiten den lekuetan toponimiak euskaraz egitea, ezta?

Bai, bai, hori hor dago, izen horiek hor daude. Hemendik ehun urtera Erasoren jende guztiak ingelesez egiten badu ere, toponimiak hor jarraituko du, euskaraz segituko du, agian ingelesezko ahozkerarekin, baina bai. Indar hori du toponimiak, eta hau pizgarri bezala ere erabili izan da, esaterako Iruñerrian. Gure memoria hain da laburra, iruditzen zaigu gure aitona-amonena betikoa dela, baina bat-batean, hara, zergatik egiten digu hemen mendiak euskaraz? Edo Artxoan eta inguruetan, euskararen muga horretan benetan deigarria da, toponimiak testigantzak dira eta pisu simboliko handia dute.

Gurera bueltatuko gara berriz... zer nabarmenduko zenuke Erasoko leku-izenetatik?

Esaterako, badute herritik ez oso urruti Ardantzeta deitzen den toki bat. Gaur egun ez dugu ardantzetik inguru honetan, ardantzeta ardoa egiteko toki da, alegia, mahastiak. Bada, klima aldaketari erantzuna emateko aukera badago hor! (barreak). Horrez gain, badira beste bi mendi, biak bagadiak direnak, baina bat izendatzeko Korosti izena erabiltzen da, alegia, gorostia,

eta bestea izendatzeko, berriz, Lizardi. Batzuetan toponimiak leku batean nagusiki dagoena izendatzen du, baina beste batzuetan, berriz, toki hori berezi egiten duena. Bi mendi horiek ez dira 'Bagadihandi' edo 'Bagadittiki' deitzen, mendi horiei berezi egiten dituen landareek ematen diete izena. Gero, badago inguruan egon zen Erdi Aroko herri baten aztarnarik ere, toki edo alor batzuei Ausano edo Ausoa deitzen diete horregatik, hori zelako Imozko aspaldiko herri bat, jendez hustu Zena, baina izena gordetzen duena. Arkeologoentzat pista on bat izaten dira toponimoak indusketak non egin jakiteko.

Beste leku batzuetan antzeko saioak egitea polita litzateke, ezta?

Bai, niretzat hobby modukoa da hau, oso politak izaten dira horrelako hitzaldiak, beraz, edonork bere herrian horrelako zerbait egin nahiko balu dei dezala lasai. Politena herri zehatz bati buruzko saioa egitea izaten da, Eraso, Beruete edo Alkotz hartzea, adibidez. Ibarra denean kontu orokorrak izaten dira, eta jendeak benetan berak ezagutu dituen izenen inguruan solasean gozaten du. Adineko jendea-eta hurbiltzen bada, hor sortzen den hartu-emana polita da, eta komunitatea trinkotzeko aukera ematen du. Beraz, eskualdeko beste herriak ere gonbidatuak daude horrelako lanketak egitera.





Anueko herritarrek egindako lorategia



Anueko herritarrek egindako lorategia




Keyline sistemen ikastaroa, Muskitzen



Clown talde ederra elkartu zen Erasoko inprobisazioan



1983ko kintoak



Orbela mendi taldea maiatzaren lehengo urteroko ibilbidean. Udabeko Bentatik atera, Jauntsarats, Gartzaron eta Ihaben zeharkatu zuten Udabera itzuli aurretik



Lore sorta batekin agurtu genuen Ariane Usarbarrena euskara teknikaria



Basaburuko Ahaztuak taldeak Gurseko kontzentrazio esparrura egindako bidaiari



Imozko bigarren irteera osasungarria, apirilaren 25ean



Anueko herritarrek egindako lorategia



Udan itzaletan irakurtzeko nahiz entzuteko hamaika eduki!

Esan Erran irratiko 2025-26ko denboraldiko azken hilabetea dugu hau, eta kolaboratzaile sarea pixkanaka agurtzen hasi gara honezkeru. Ekainaren 19an amaituko da denboraldia, baina laaaasai! Udan igerilekuan, errekan, hondartzan, edo zorte gutxiago dutenek lanean ere entzungai izanen dituzue podcast eta kolaborazioak!

Elkarrizketak

Gai asko landu ditugu maiatzean Egun Ero magazinean, eta horren erakusle dira webgunean zintzilikatuta ditugun elkarrizketa anitzak: baratze-sistemen eta isurketa uren aprobetxamenduari buruz Sustraiak

Habitat Designeko Eber Egino kideari egin geniona, Josu Chueca historialariarekin Gurseko kontzentrazio esparruaz izandako solasa, Albina Stardustekin Jauntsaratsen antolatatu zuten arratsalde trabestiaz hitz egindakoak, Global Sumud Flotillan parte hartu duen Lander

Aurrekoetxeak kontatutakoak... interes eta gustu guztiendako edukiak ditugu irratsaioan!

QR Irratiko elkarrizketak



Kolaborazioak

Dakizuenez, eskualdeko kolaboratzaile sare aberatsa dugu, hile-ro-hilero gai desberdinak lantzen dizkiguten kide finak. Maiatzeko kolaborazioen artean batzuk aipatuko ditugu: maiatzaren hasieran Ainara Urritza erasoarra **euskal literaturaren udaberriko loraldiaz** aritu zitzaigun, eta besteak beste, Maddi Ane Txoperenaren Zaldi bat eta Maria Reimondezen Basatiak (Begirada libre bat hilekoari, gorputz askotarikoetatik) liburuak ekarri zizkigun, bigarren hau Nerea Loiolak euskaratua.

Badena eta eztena kolaborazioa gidatzen dute Eneko lurrarmendi 'Tintok' eta Mikel Lakastak, eta ikasturte honetan landare eta zuhaitz desberdinak ekarri dizkigute, eskualdeko toponimiarekin lotuz eta hainbat bitxikeria eta xeblekeria kontatuz. Hilabete honetan intsusa izan da protagonista, eta ez adi, erabiltzen ugari izan baititzake zuhaixka honek: sendabelarretarako, txirula edo katxinbak egiteko, xanpainetarako...



Kolaborazioen errepassoarekin amaitzeko, Oihana Fernandez abeslariak gidatzen duen **Disidentziak musikan** tarteko azken ekarriko dizuegu: Violeta Parra kantari txiletarrari eskaini dio ikasturteko azken aurreko kolaborazio, ez galdu!

QR Euskal literatura kolaborazioa



QR Badena eta eztena, intsusa



QR Disidentziak musikan, Violeta Parra





Egun Ero Kantuz eta Memoriaren txokoa

Ostiralak bereziak izaten dira Esan Erranen, izan ere, ohiko Egun Ero magazina alde batera utzi eta Egun Ero Kantuz eta Memoriaren Txokoa irratsaioak tartekatzen ditugu. Hilarbete honetan Imozko gonbidatu bat izan dugu lehen saioan: Virginia Sarasa Eritze. Bere bizitzako pasarteak eta hamar kanta kuttunak gurekin konpartitzeaz gain, baratzeko lore sorta eder batekin etorri zitzaigun estudiora, eskerrik asko!

Eta, Memoriaren Txokoa berriz, bi saio interesgarri izan ditugu maiatzaren lehenengoa, maiatzaren 8a, ludismoari eskaini genion. Badakizue makinak suntsitzearen aldeko langile mugimendu hori non eta nola sortu zen? Ez? Bada, ez galdu irratsaioa!



Azken Memoriaren Txokoa saioa, berriz, izaki txiki bezain garrantzitsu bati eskaini genion. Izan ere, maiatzaren 20a erleen munduko eguna zela jakin genuen, eta ezin izan genion intsektu txiki berezi honi irratsaioa eskaintzeko tentazioari eutsi...

QR Egun Ero Kantuz
Virginia Sarasa Eritze ▶



QR Memoriaren
Txokoa: Suntsitu
makinak! ▶



QR Memoriaren
Txokoa: Gora erleak
eta polinizatzaileak! ▶



Zorionak Zorionak !



Joseh 40 urte bete ditu
maiatzaren 29an
eta Maria Angelesek 83
maiatzaren 30ean.
Zorionak Egillorho
bi herritar haiei!



Zorionak 12 urteengatik kuadrila!
Maddi, Arkane eta Oihane goian,
eta Oinaty, Asier, Urko eta Enare behean



Ikaragarria Beramendin gertatua, 1896an

Urte baten barnean, ezkontza, **HERIOTZA** eta jaiotza

Azken urte honetan ongi famatua izan da Bartzelonan izan den ustezko parrizidioa. Kataluniako gizonik aberatsena, Mango arropa denden jabea, Isak Antic, bere semeak hil ote duen. Heriotza 2024ko hondarrean izan zen, baina aurten bere semea Jonathan atxilo hartu eta prozesatu dute. Aita eta semearen arteko harremanak minduak ziren aspalditik, dirudienez, eta familiako ondasunen gora-beherek eraman omen du bere aita hiltzera

Bai, horrelakoak gertatzen dira, baina oso-oso bakanak izaten dira. Arraro xamarrek. Eta nire buruan banuen antzeko zerbait eta gaur kontatzea erabaki dut. Gertakizuna Beramendin izan zen 1896an. Hartu gogoan data hau.

1896: ezkontza, heriotza eta jaiotza, hurrenez hurren

Ezkontza

1896ko otsailaren 17an izan zen Udaben ezkontza. Alde batetik, Pedro Ostitz Oskotz, Ihabenen jaio eta Beramendin bizi zena, 29 urtekoa. Gurasoak, Miguel Jose Ostitz Gerendiain, Beuntzan jaio eta Beramendin bizi zena, eta Mariana Oskotz Arroki, Etxalekuko **Marimigeleneko Labategian** jaioa eta Beramendin bizi zena. Maistarrak ziren eta denbora laburra zeramaten Beramendin, oso laburra. Aurki ezkontza hitzartu ondoren etorriko ziren Beramendira.

Eta, beste aldetik andregai, Gregoria Loidi Barandiain, 24 urtekoa. Gurasoak Manuel Loidi Zarrantz eta Maria Juana Barandiain Tellechea, biak Beramendin jaioak eta Udaben bizi zirenak.

Ezkontzan ageri diren lekukoak: Miguel Iriarte Apeztegia, **Borboneko** jabea eta Gartzarongo apezaren anaia eta Jose Antonio Artola Goñi, Etxarriko semea, Madotzen bizi zena.

Beramendiko **Xarrajeron** etxean ja irri ziren bizitzen, errentan, Bautista Goikoetxea ihabendarraren maistar.

Idortea

Izugarrizko idortea izan zen urte hartan, pikorra (garia eta garagarra) galduxe zen, ez baitzuen tantarik ere bota. Eta guk dakigunez, Frantzia eta Espainian guzian ere gertatu zen hori. Hemen uztak galduak eta Frantzia aldean ia galduak. Hortaz, ogiaren prezioa gora eta gora. Ez zen giro izanen, lanaren probetxuaren zain eta esperantzarik ere ez. Etxe askotan miseria latza eta gure protagonisten etxean ere zerbait gertatuko zen.

Dena lehertu zen

Xarrajeroren etxean ez zen giro, ezkontza izan zutela ia bi hilabete, egun bat faltan, apirilaren 16a zen, igandea.

Dirudienez aitaren eta semearen artean bazen gainera elkarrenganako zerbait haserre.

Bestalde, gariaren zain eta pikorrik ez. Etxe hutsean haserre maiz.

Aitak ere zerbait pentsatuko zuen ba, eta zergatik ez saldu behitto bat? (Hona zutenazienda: uztarriko behi bat, larreko bi behi, 4 ahuntz eta gizendu eta hiltzeko bi zerritto)

Aitak, Miel Joxek, feriara eraman nahi behia, sos puxka bat biltzeko. Eta semeak nahi ez. Attek, goizeko zortzietan, behia beitian **erremalekin** lotu eta, kanpora ere atera zuen; baina semea lasterka atzetik oihuka; eta ez arre eta ez so, jabetu zitzaion, eta behia kendu eta behitegira sartu zuen.

Horrelako mespretxua ikusi ondoren, gizona suturik, goiti igan, eskopeta hartu, beitera jaitsi eta bertatik bertara tiro egin zion. Buruan bete-betean zuen tiroa eta lurrera zerraldo erori zen seme ezkonberria.



▲ Udabeko panorama. Hemengo zen Gregoria Loidi eta hemengo elizan ezkondu ziren Pedro Ostitz eta Gregoria



Eta besterik gabe, eskopeta berekin zuela, alde egin zuen Miel Joxek, etxe-ko jabea ere hil behar zuela mehatxuka. Borda batean (1) bizi zen hau eta, ustez, harako bidea hartu zuen. Beldurra erabatekoa zabaldu zuen, ez zen gutxiagorako alajaina!

Heriotza egin zuen, beldurra zabaldu zuen eta **Morenoren** bordara joan beharrean, beste bide bat hartu zuen, ihesi. Ez, Miel Joxe ez zen nonbait zozoa adimenez, bere nagusia hil behar zuela eta, bai, tori! beste bide bat hartu herritar guziak engainatu-

rik. Zaulia eta bizkorra ere bazen ba, nahiz zahartuxe izan, 68 urte baitzitu ordurako, bide luzea hartu eta Frantziara alde egitea erabaki zuen. Ondoren Ameriketara alde egin zuen geroago jakin zenez. Aldrebesko hitzak jendea engainatzeko eta ihesi, luze eginen zitzaion bidea hartu zuen.

Bitartean Beramendin, hilaren 18an, meza eta enterrarioa izan zen. Eta 22an funtzioak atera zizkieten hurbileko lau parrokoen artean. Sentimendu latza utziko zuen utziko zuenez herri hauetan!

Bilobaren jaiotza

Gregoria alarguna, gaixoa, Beramendin gelditu zen momentuz, haurdun zegoen eta arrotza zitzaion etxe hartan gelditu behar! Ez zituen egun atseginak pasako umearen zain. Eta horrela etorriko zen Joxe Manuel, abenduaren 8an, asteazkenez, bizitza zerbait goxatzeko Gregoria errukarriari.

Zer egin zuen alargunak?

Hurrengo urtean, hau da, 1897an ez zen Beramendin, ez dakigu nora alde egin zuen. Dena dela, 1901eko Erroldan bai hemen zela eta ezkondua ageri zaigu Guliako Francisco Ameztegi Ameztegiarekin. Udabean bizi ziren eta bertan dionez hiru urte daramatzate, beraz 1898an ezkonduak behar dute izan. Ezkontza hau ez dut opatu inon

Joxe Manuel bilobaren heriotza

Joxe Manuel hazten ari zen baina gaiztoak ez zuen asko iraunen, 1902ko maiatzaren 15ean hil baitzen 5 urte bete berritan; gaixoa, diferia gaitzak ito zuen.

Gurasoak ere laster alde eginen zuten Udabetik, nahigabe eta sufrimendua besterik izan ez zuten sorterritik.



▲ Beramendiko eliz liraina. Eliz hau XX. mendearen hasieran egin zuten, beraz bertan zen aurreko elizan bataiatu zuten Joxe Manuel, 5 urtetan hil zen umezurta

 Txurdan

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com



Ikaragarria Beramendin gertatua, 1896an

(1) Nor zen Xerrajero etxeko nagusia?

Heriotzaren kontua hemen bukatu dut, baina hor puntaren bat zintzilik gelditu zait eta interesgarri iruditu zait hau ere kontatzea. Erabat atzen-dua dela baitakik, goitiko heriotzarekin gertatu bezala. Nor zen **Xerrajero** etxearen jabea? **“Borda batean bizi zen”** hori nor ote genuen? Non bizi ote zen? Paper begiran ibili eta topatu dugu noizbait. Uztegi Goikoetxea Artola zen, Ihabengo Juana Moreno Ostitzekin ezkondua eta ordurako bost umeren aita. Uda-beko mugatik hurbil zen borda hori, oraingo Ihabengo **Benta** baino 100-150 metro beherago. Eta Martin Jose Aranguren zen jabea (Honetaz ere Ihabengo notarioez idatzitako historian aipatu genuen Pulunpen)

Borda honek 1907an su hartu eta kiskali zen erabat. Horrengatik Martin Jose Aranguren etxe berri bat egin zuen karretera ertzean, orain Ihabengo Benta deitzen diogun hori, 1911. urtean.

Xarrajeron bizi zirenak eta **Morenoren bordan** bizi zirenak, ahaideak ziren eta ez nolanhikoak, oso ahaide hurbilak. Baina elkarrekin bazuten ezin ikusia ere, hor agertzen baitzaigu Joxe Miel, gaurko protagonista printzipala, bere nagusia hil behar zuela eta.

▼ Beramendiko herria



Basaburuan beste ezbehar larri bat

1896ko urteaz aritu gara, batez ere. Eta urte horretan berean gertatu zen beste ezbehar handi bat Basaburuan. Aizarozko errotaria Martin Jose Arano Lizaso zen, Beuntzako semea eta familia baten burua: oinazturak jo, eta hil zen.

Heriotzaren berri ematera Jauntzaratsa, Esteban Ezkurra Otsakar joan zen, Aizarozko ehuntzalea. Juzgalduan jasotako agiria honela dio: “Don Martín José Arano Lizaso, domiciliado en dicho lugar de Aizaroz, **acaba de fallecer** en este momento á la edad de sesenta y ocho años **en su propio domicilio** á consecuencia de asfixia producida por una chispa eléctrica”

Atsalde erdi-erdian, erauntsi baten mehatxupear, Errotakoak tomateak biltzen ari omen ziren, **baratzetik etxe barnera sartzen leihotik, toki erosoenetik, jakina**. Eta leihoan omen zegoen Martin Joxe tomateak eskuratzen eta oinaztura bat erori eta bete-bete harrapatu.

Auzo zuen Esteban lasterka Jauntzaratsa, gertatuaren berri ematera. Urte lehor. bero eta zoritzarreko hartan, abuztuaren hasieran, tomate onduak ari ziren biltzen Aizarotzen. Bada zerbait!

Gaur kontatu ditugun protagonistak badute beren artean nabarmentzeko datu bat: biak 68na urte zuten.

OHARRA: Orain berriki Basaburuko **AHAZTUAK** taldeak omenaldi bat egin zion Aizarotzen, Miguel Arano Arribillagari, Espainiako gerran, 1936ko abenduan, 38 urtetan eta lau umeren aita zenari, bizia galdu zuelako. Eta Miguel hau tximistak hil zuenaren biloba zen.

Bai, EAJko Itxarkundia batailoian borrokan bere bizia eman zuen. Legution zauritu eta Zornotzako ospitalean hil.

Bada zerbait, Aizaroztik joan Gipuzkoara eta erabat euskal nazionalista bihurtu baitzen, boluntario Euskal Herriaren alde bizi emateraino.

Miguelen historiari ikusi 258. Pulunpen, 11. orrialdean.



Ihabengo Bentako plakan zer jartzen duen ▲

Hiztegia

Parrizidioa: guraso-hilketa.

Atxilo hartu: preso hartu.

Hurrenez hurren: sucesivamente

Labategia: labea izaten zen etxetxo. Batzuetan nahiko handia izaten zen eta masterren bat ere izaten zuten bertan.

Aurki: Probablemente. Hitz hau Nafarroan arrunta dugu eta esanahi hau du.

Hitzartu: apalabrar, concertar.

Idortea: Lehortea.

Garagarra: cebada.

Uzta: cosecha, mies.

Feria: Garai hartan feria Irurtzunen hamar egunetik behin izaten zen.

Beitia edo beheitia. Hemen erabiltzen dugu etxearen beheko solairuri deitzeko (Hiztegiaren ez dator noski esanahi honekin).

Jabetu zitzaion. Oldartu, gailendu zitzaion.

Mespretxua: desprecio.

Zerraldo erori: caerse muerto, caerse redondo.

Zaulia: agil.

Enterrarioa: lurperatzea. Aspaldian, zaharrei askotan entzuna.

Ertza: bazterra.

Umezurtza: huérfano.

Monakon barna,

Euskal Herri handira

Ardo frexkotik



Palais Princier de Monaco

Bongiurnu (Egunon)

Alberto Grimaldi, Monakoko Printzea, bere jauregian bizi da, **Palais Princier de Monaco** deituan. 1297a ezkerko grimalditarrak dira bertako jauregi jaunak.

Bertako hizkuntza **munegascu** delakoa da. Gurea baino 1000 aldiz gutxiagok daki hizkuntza hau, baina eskoletan irakasten dute; berena baitute.

Monakotik Imotza eginen dut salto. Monakon hasi naiz baina Imotz nuen gogoan. Lehengo egun batean, emakume batek gure hizkuntzaren kontua zela eta, hala bota zidan, xorrotx:

-Bai, aizu, entzun!!! Umeak hizkuntza guziak ikasi behar ditu: alemana, frantsesa, italiara... denak!

-Ah!

Isilik gelditu nintzen, ongi ere ez bainion ulertu. Ez dakit, zinez, beretik ari zitzaidan edo azken urteetan zabaldu den gezur handiaren segitzai-

lea den, hau da, haur batek bi, hiru, bost hizkuntza, denak batean ikasi ditzakeelako kontuarekin. Pentsatu ere pentsatu nuen: **honelako txorakeriak honenganaino egin ote du bide?**

Eta berriz ere Monakora joz, zera etorri zitzaidan burura, Monakoko printzeak, Alberto Grimaldik hiru hizkuntza batean ikasi zituelakoa: amarekin ingelesa, estatubatuarra baitzuen, aitarekin frantsesa, eta alemana, berriz, egunero-egunero erakusten zion erakustunarekin, jesuita batekin, zein aspaldian irakurri nuenez, euskalduna zen. "Etxeko" bi hizkuntza batean eta, hirugarren bat ere bai, alemana; jesuitak ezagutuz, ongi baino hobeki erakutsiko ziona gainera. Ah, eta bertako hizkuntza, **monagascu** deitua.

Monakoko Albertok aipatu 4 hizkuntza horiez gain, italiaraz ere oso ongi mintzo omen da. Agian, Imozko nire adiskide horrek, Alberto Printzea ote du gogoan? Ja, ja, ja!

Kontuak kontu, ametsak amets, usteak ustel izaten dira eta egiaz, gu **Xalbadorreko, Joantxeneko, Karakoetxeko** eta **Iribarreko** semeak gara. Eta hortaz, hobe genuke gure hizkuntza nazionala erakutsiko bagenie gure umeei, lehena beharko genukeena, eta hura, ongi. Bigarrena, okerxeago bada ere, ziurtaturik baitute. Eta, zoritxarrez bada ere, oso ongi dakit zer diodan: zerbaitez damaturik bizi izan banaiz, gaztelera sobera gazterik ikasi izanaz bainago. Ondorioak nik neronek dakizkit.

Jaun-andreok, guk gurea! Zarranzko neskato hark norbaitek ea nor zen galdetzen zionean erantzuten zuena datorkit burura horrelakoetan:

-Ni Juanthro naiz! –Juantroneko neskato hura etxeko ume zaharrena baitzen!

–Hura **Juanthro** zen! Eta ni **Txurdan**, zu **Lope** eta hura **Kaxene!** Eta neskak haiek dira **miltxonetarrak!** Ez dago besterik, Monakon ez dugu jauregirik, baina nahikoa eta aski ere badugu gure etxea, gure benetako jauregia. Eta bertako hizkuntza nazionala euskara dugu.

A rivèd se.



Txurdan

Hiztegia

Printzea: Principe

Irakatsi: Erakutsiren antzekoa

Zinez: Siñez. Hau ibiltzen dugu gure hizkeran.

Hizkuntza nazionala: Norbaitek ulertu ez badu, berriz esanen dut: gure hizkuntza nazionala euskara da.



▲ Hor ageri diren Igoako nextak horiek guziek euskara oso ongi ikasi zuten. Eta atzeko aldean ageri diren bi muttiko horiek ere bai!



Azken txanpa

Iritsi gara Ostiral Kulturalen ikasturteko azken txanpara. Eta indarrez eginen dugu, azken urrats horiek antzerkiarekin eta musikarekin lagunduz. Liburutegian, bestalde, ekainaren 22an hasiko dugu udako ordutegia. Udarako irakurketa gomendio bat ere badakarkigu...

Orain ikusgai dagoen erakusketa luzatuko dugu ekainean: Lourdes Gorostieta Gorosen **PINTURA PUZ-LEA**. Bere puzzlea osatzeko bi motako piezak sortzen ditu Gorosek. Batzuetan, bere margolari gogokoenen koadroak erreproduzitzen ditu bere erara, espazioan eta denboran urrunekoak edo gertukoak. Beste batzuetan, bereziki maite dituen lekuak islatzen ditu, sentitu dituen emozioak. Kolorearen oreka bilatzen du emaitza harmoniatsua lortzeko.

Ekainaren 5ean, 19:30ean, Gaztanberaren Eguneko egitarauaren ba-


rruan, **AMATI Abesbatzak** kontzertua eskaini du Gerendiango San Lorenzotz parrokiari.

Ekainaren 12an beste kontzertu bat izanen dugu, kasu honetan Gaskueko Santurbe baselizan. Kontzertu internazionala izanen da: **Padraig Jack** Irlandako Aran uharteetako abeslaria. Padraigek gaelikoz nahiz ingelesez interpretatzen dituen abestiek Van Morrison, Shane McGowan edo Sinead O'Connor bezalako artisten eragina dute. Hain zuzen, O'Connorren ekoizlearekin grabatu ditu bere albumetako batzuk. Bere herrialdeko folk zerrendetan lehen postua lortu du abesti horiekin, beraz, aukera paregabea izanen dugu nazioarteko musikari arrakastatsu honekin gozatzeko.

Hurrengo asteburuan, urtero bezala, zonaldeko antzerki taldeak, Axolagabek, aurten prestatu duten lana eskainiko digu: **Popurri**. Hau da eman diguten informazioa: "Hogeita bost urte, hogeita bat estreinaldi, ia berrogei aktore, sei mila ikusle; ikasteko ordu eta entsegu asko, barre asko, nerbio asko, konplizitate handia, eskuzabaltasun handia. Gaur arte. Eskerrik asko laguntzeagatik". Adi ordutegiari eta datei: Larraintzarko Gizarte Etxean izango dira lau funtzioak, ekainaren 19an (ostiralarekin), 18:30ean eta 20:30ean, eta ekainaren 20an (larun-

batarekin) 17:30ean eta 19:30ean. Sarrerak 7 eurotan erosi ahal izango dira Gizarte Etxeko tabernan.

Ikasturtea amaitzeko, zonaldeko beste artista batekin jarraituko dugu. Iñaki Larrayozek bigarren estudio lana aurkeztuko digu. "Larra bideak II" du izenburua diskak, eta musikari ultzamarrak hau ere bakarrik abia arren, estudioan talde batez lagunduta aritu da eta horrela ariko da zuzenekoan ere. Adi egunari, kasu honetan "El Jueves" asteazkenetan kaleratzen den aldizkaria bezala, Ostiral Kulturalen ikasturtea ostegun batekin itxiko dugulako. Kontzertua izanen da, beraz Gizarte Etxeko tabernako terrazan, ekainaren 25ean 19:00etan, ostegunarekin, gogoratu.






Liburu gomendioa

ENARAK

Nobela honetako narratzaileak Arroagoia inguruko mendiak poliberdeak direla dio. Estilo berean adierazita, beldurrik gabe esan daiteke irakurleak poliatseginez irakurriko duela Enarak: suspentsea aurkituko du haren orrialdeetan, umorea, sakontasuna, lengoaiaren erabilera arina, ausardia. Urtain da nobela honetako lehen pertsonaia; pintore profesional bat, azkena. Enarak ere hor daude, etengabe hegan, segundoko hamar metro eginez. «Bernardo Atxagak berria den zerbait idatzi du. Aparteko nobela».



Liburutegiko udako ordutegia

Ekianaren 18tik irailaren 14ra arte liburutegiko ordutegia hau izango da: Goizeko 10:30tik 13:30ra, astelehenetik ostiralera

Liburutegian bertan honezkero mitikoa den kartelarekin (El Fary igerilekuan irakurtzen) zehaztuko dugu ze egunetan hartuko dituen oporrak liburuzainak.

 Patxi Irurzun

ESAN ERRAN IRRATIKO DENBORALDI BUKAERA



EKAINAK 18, OSTEGUNA JAUNTSARASKO PASADERETAN

19:00etan, zuzeneko irratsaio berezia 'adarra jotzen' eta 'disidentziak musikan' kolaborazioekin

20:00etan, irratiko kolaboratzaileen talo-afaria





Bertso Eskolen

Eguna

Jauntsaratsen ospatu da lehenengo aldiz

Nafarroako Bertso Eskolek eta Bertsozaleen Elkarteak urtero antolatzen duen topaketa da eta aurten lehenengo aldiz ospatu da Jauntsaratsen. Maiatzaren 24an izan zen, igandearekin, eta, aurrekoen arrakasta jarraituz, Nafarroako 80 ikasle bildu ziren

Ultzamaldeko bertso eskolak bi talde ditu. Talde bat Larraintzarko ikastetxean biltzen da, ostegun eguerdian, eta bestea, astelehen arratsaldeetan, Larraintzarko Bentan. Osotara 15 ikasle daude, Atezkoak, Basaburukoak, Odietakoak, Ultzamakoak eta Lanzkoak. Arrakasta hori aitortzeko, Jauntsaratsen egin da Bertso Eskolen Eguna, lehenengo aldiz.

Iker Gorosterrazu da Ultzamaldeko Bertso Eskolako irakaslea: "Urtero aldatzen dugu tokiz eta ikusita Ultzamaldean hainbertze ikasle animatu direla, bi talde ditugula,

bultzada emateko aukeratu genuen Jauntsarats". Urteetan, bera oraindik ikaslea zenean, Larraintzarren egin zen. Baina lehenengo aldia da Jauntsaratsen eta Basaburuan: "Nafarroa osotik, ditugun bertso eskola guztietatik etortzeko ere ongi dator, Haritzaren Ibilbidea dago eta azpiegitura eta baliabide aldetik ere ongi dago. Baina batez ere bertso eskolari hauspoa emateko egin dugu han. Gurasoek aurretik jakin zuten eta berehala hasi ziren izen emateagatik galdezka. Pozik daude".



Iker Gorosterrazu ▲



Bertso Eskolen Egunean bildu ziren guztiak, Jauntsaratsen ▲



Egitarau oparoa

Bertso Eskolen Eguna arrakastatsua izaten da oso, joan zen urtean ere 75 ikasle baino gehiago bildu ziren eta 18 urtetik beherako 150 ikasle daude Nafarroa Garaian: "Arrakasta du, bai".

Egitarauan, ikasleen arteko bertso txapelketak eta azken urteetan baita bideo leihaketa bat ere: "Joan zen urtean txikien txapelketa deitzen genuena berreskuratu genuen. Eskola arteko txapelketa izaten da, 14 urtetik beherakoei zuzendua. Eta, gero, 14 eta 18 urte bitartekoena ere egiten dugu. Taldeka izaten dira. Urte batean ez genuen egin lehiaren inguruko eztabaida izan genuelako, baina bueltatu gara. 14 urte betetzean salto hori ematea aurretik inoiz txapelketarik egin gabe ez genuen egokia ikusten eta berriz egiten dugu orain. Lehia sanoa izaten da. Bideo lehiaketa azken hiru urteetan egin dugun ariketa da. Ikasleek gehienez bi minutuko bideo bat osatzen dute bertsoekin eta beraien nahi duten gaiaren inguruan. Bideo horiek denak proiektatzen ditugu eta ondoren sari banaketa dugu". Horiek burutu ondoren, herriarekin lotura duen ekintzaren bat egiten dute, aurten, Basaburuko Haritzen

Ibilbidea: "Bidean arbolak agertzen diren bertso sorta batzuk kantatu ditugu".

Bertso eskolak, hiru urte

Ultzamaldeko Bertso Eskolak hiru ikasturte bete ditu eta aurten, gainera, Larrainzarko Ikastetxean eskolaz kanpoko talde bat ere osatu da, ostegun eguerdian biltzen dena. "Aurten boom bat izan da eta lehenbizikoz Basaburuko ikasleak etorri dira, iaz Ultzama, Lantz eta Atezkokoak besterik ez zirelako. Eta, gero, Larrainzarko ikastetxean Lehen Hezkuntzako laugarren mailakoekin talde bat atera da, espero gabe. Ikastaroa ematen dugu eskoletan, hezkuntza araututako orduetan eta horren ondorioz beraien irakasleak, tutoreak, izugarri xaxatu zituen eta zazpikote bat animatu da. Hasiberriak dira baina animatzen dira kantatzera, adibidez, Maialen Lujanbio eta Nerea Ibarzabalen bertso saioan haiek ere etorri ziren, edo bertso korrikan ere parte hartu zuten. Nahiko animatuak dira". Irakaslearen eta gurasoen lanaren garrantzia azpimarratzen du Gorosterrazuk: "Gurasoek dute eragin handiena. Normalean euskaltzaleak dira eta ez badira bertsozaleak euskaltza-

leak, behintzat, bai. Horrek badu eragin handia haurrengan, animatzeko edo ez". -Irakasleak ere zerbait egiten du, ezta? (irriak)- "Bai, bai, talde kohesio hori lortzea behinpin saiatzen gara (irriak)".

Bertso Eskolen Egunarekin batera, eskolatik kanpoko ekimen ugari antolatzen dituzte, adibidez, negulekuak kanpaldia, arestian aipatutako talde kohesio horretarako ere garrantzitsuak: "Bueltan etorri zirenean galde-tu nien lagun berriak egin ote zituzten eta baten erantzuna izan zen "Nik Lur hobeki ezagutu dut", taldeko laguna hobeki ezagutu zuela erantzun zidan. Astelehenero daude elkarrekin baina orduan ezagutu ziren hobe, polita iruditu zitzaidan".

Matrikulazio kanpaina, irailan

Bertso eskolan matrikulatzeko kanpainia irailan abiatuko da.

Informazio guztia:

<https://bertsoeskola.eus/bertsoeskolak/>

Pulunpeko zozketan saria doanik ematen duten ostatuak

Eskualdeko ostatu askok doanik eskaintzen dute saria eta hori izugarrizko laguntza da guretzako. Apurka-apurka aterako ditugu guztiak.



pulunpe



Aizarozko ostatua:

Igoabide, 9, 31866
Aizarotz
848 99 24 69



Arraizko ostatua:

Asunción, 12, 31797
Arraitz-Orkin
948 30 50 03



Bi gurpilen gainean edo baloia eskuetan, ederki ari dira eskualdeko kirolariak

Zarranzko Martxelo Mingot Zabalza, 10 urte besterik ez ditu eta hilabete gutxi daramatza Biketrial bizikleta modalitatean. Estatu mailan laugarrena izan da jokatzeko duen hirugarren txapelketan, oso denbora gutxian izugarrizko ibilbidea eginez. Gainera, eskualdeko jokalariek dituen Atarrabiako Beti Onak eskubaloia taldea ere laugarrena izan zen Valentzian, Espainiako Txapelketan

Oina ia-ia podiumean jartzea lortu dute eskualdeko hainbat kirolari gaztek. Alde batetik, eskubaloiko gazte kategoriako neskak ditugu. Beti Onak taldea laugarrena gelditu baitzen Estatu mailako txapelketan. Historikoki jokalaria asko jaso ditu talde horrek Ultzamaldeko talde-tik, eta, gaur egun Eltzaburuko Jone Goya, Ziaurrizko Kattalin Peñalver; eta, Iraizozko Saioa Arangoa eta Lua Crespo ari dira Atarrabiako taldean. Bada, esan bezala, brontzeko domina lortzetik oso gertu gelditu ziren. 25 eta 30 galdu zuten Usa H.

Mislata Valentziako Mislata herriko taldearen kontra. Podiumean, berriaz, Granollersko taldea izan zen lehena eta Sant Joan Despí bigarrena, euren arteko partida 22 eta 25 amaitu ondoren.

Beti Onak taldea Atarrabiakoa da, esan dugun bezala, baina urteetan hara joan dira Ultzamaldeko taldean hasitako gazte asko. Gaurko jokalaria horien gurasoek eta jokalariek esker onak eman nahi dizkiete, gainera, txapelketan parte hartzeko diruz lagundu duten Ultzamako eta Odietako enpresei.



Jone, Kattalin, Saioa eta Lua ▲

Martxelo Mingot Zabalza, bizikletaren maisu txikia

Zoriontzekoa da Martxelo Mingot Zabalza imoztar txikiaren bizikleta gaineko ibilbidea. Joan zen urrian hasi zen Biketrial deituriko kirolean, Benito Rosen eskolan. Gutxi gorabehera, bizikletan, oreka mantenduz, saltoak egitea eta oztopoak gainditzean datza. Eta hilabete gutxi horietan Estatu mailako laugarrena izatea lortu du parte hartzen duen hirugarren txapelketan besterik ez! Orduan podiuma egitetik oso gertu gelditu zen, baina Nafarroako Txapelketa jokatu berri du, eta, hor bai, hirugarrena izan da. Aurretik, gainera, laugarrena izan zen Gaztela eta Leongo eta Tolosako txapelketetan; eta, bere lehenengo lehian, Madrilgo Txapelketan, bostgarrena izan zen. Ekainaren 27an Espainiako Txapelketan izanen da, Lizarran. Zortetik onena opa diogu!



Martxelo ▲



deceuninck



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m²k) **0,85**



JASANGARRIAK ETA EFIZIENTEAK



ENERGIA AURREZTEA



**SEGURTASUNA ETA
SENDOTASUNA**



ERABATEKO ISOLAMENDUA

Mendialdean elikagaien ekoizpenari bultzada emateko jardunaldia

Ekainaren 4an Leitzako Mimukai zentroan Tokiko Elikadura Sistema eta Ekoizpena bultzatzeko Tokiko Politika Publikoei buruzko jardunaldia egingen da, arratsaldean. Elikadura Mahaia antolatu du jardunaldia, eta helburua da politikako arlo desberdinetatik tokiko elikadura sistema eta ekoizpena bultzatzeko praktikak eta esperientziak ezagutzea



MENDIALDEAN ELIKADURA SISTEMA ETA ELIKAGAIEN EKOIZPENA BULTZATZEKO TOKIKO POLITIKA PUBLIKOAK



Ekainak 4

Arratsaldean

Leitza

Arratsalde osoan hainbat mahai-inguru eta hitzaldi egonen dira, proiektu eta esperientzia desberdinak ezagutzera emateko. Tokiko erakundeetatik eta herri edo eskualde mailan antolatu diren ekimenetan arreta jartzea da asmoa, baita beste eredu eta ideia batzuk ekartzea ere.

Izan ere, maiz elikadura ez da politika arlo gisa identifikatzen, eta beste zenbait arlotan zeharka lantzen da, duen garrantziak ohartu gabe. Esaterako, kultura eta kirol emanaldietan antolatzen diren herri otorduak, elikadura eskubidea bermatzeko antolatzen diren ekimenak, herri ostatuaren lizitazioak edo zaborren kudeaketa, tokiko elikadura sistemen parte dira. Halaber, nekazal ekoizpenari lotutako politikak gobernu zentralarekin edo autonomikoarekin lotu ohi dira, baina herri mailan ere badago nola eragin arlo horietan.

Honetaz guztiaz solasteko eta beste zonalde batzuetako esperientziak ezagutzeko antolatu ditugu jardunaldiak. Bide batez, besteen esperientzietatik indarra eta ideiak hartu eta gurean lanean jarraitzeko bultzada hartzea espero dugu. Horregatik gonbidatu ditugu eskualdeko udal eta erakundeetako ordezkariak, baina baita gaian interesa izan dezakeen edozein herritar ere

Bizi natura, ondarea eta
abentura orekan.
Etor zaitez GoiNafarroara.



GoiNafarroa
Harri biziak



AltaNavarra
Piedras vivas

visitgoinafarroa.com



2026ko apirila

2026ko apirilean gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

IMOTZ Urritza

Noa Betelu Rekalde, Adrian eta Sandra-ren alaba, apirilaren 7an jaio zen Urritzan.

Ezkontzak:

Inor ezkondu denik ez dugu jakin izan.

“ *Beti izanen zaituztegu gogoan.* ”

Heriotzak:

ATETZ Eritzegoiti

Silvia Apestegi Alzorritz, **Antsoneko** etxeakoandrea, apirilaren 24an hil zen 93 urtetan.

IMOTZ Etxaleku

Isabel Igeltz Azpirotz, **Mikeleneko** etxeakoandrea, apirilaren 17an hil zen 89 urtetan.

ULTZAMA Auza

Maria Santos Artze Zabaleta, Suarbeko alaba, apirilaren 12an hil zen 89 urtetan.



▲ *Silvia Apestegia*



▲ *Isabel Iguelz*



▲ *Santos Artze*

Eltzaburu

Agustin Oitz Sanz, Ilarregiko semea, apirilaren 2an hil zen 77 urtetan.



Ametzaren txokoa

Helbide elektroniko berriak

Azken denboraldiko sare sozialen eta beren nagusien portaeren eraginez, domeinu propioa duen posta erabiltzea erabaki da.

Gure helbide elektroniko pertsonalizatua izateak, elkartearen izena islatzeaz gain, irudi fidagarriagoa eta sendoagoa emanen dio, inguru profesionalean nola gure bazkideen aurrean.

Gure domeinua **ametza.eus** izaten jarraituko du eta posta helbideak hauek izanen dira:

pulunpe@ametza.eus
esanerran@ametza.eus
amezti@ametza.eus
publi@ametza.eus
bazkideak@ametza.eus
ametza@ametza.eus

Aldizkariaren gaietarako
Irratiaren gaietarako
Agerkari digitalaren gaietarako
Publizitate gaietarako
Bazkideen mezuendako
Elkartearen gaietarako



Gure domeinua denez, helbide elektronikoaren eta erlazionatutako datuen gaineko erabateko kontrola dugu, kentzeko eta gehitzeko ematen duen malgutasunarekin.

Aldi berean gure elkartearen interneteko presentzia indartzea ekarriko digu eta sendotasunez agertzea. Baina, batez ere, konfiantza handiagoa eragingo du: gure ingurukoekin, bazkideekin, irakurleekin, entzuleekin... bere informazioa noren eskuan dagoen jakitearekin.



**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866
ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



pulunpe

amezti 

Esan Erran irratiak udako deskantsua hartuko du ekainaren 19tik aurrera... baina laaasai, ikasturteko kolaborazio, irratsaio eta podcastak entzungai dituzue ***amezti.eus/irratia*** estekan! Irailaren 14an bueltatuko gara Egun Ero magazinarekin!

